



Euskara lehentasunez erabiltzearen aldeko ekintzak epaituko dituzte martxoaren 26an Baionan

Herribiltzak jakinarazi duenez, Gorka Roca Torre epaituko dute martxoaren 26an, 13:45ean, Baionan, euskararen aldeko margoketa batzuenatik. 2023ko irailaren 21ean eta 27an margoketak egin zituzten Izpurako (Nafarroa Beherea) eta Donibane Garaziko zenbait osasun-etxetan, "seinaleetan lehentasuna euskarari eman" zieten. Unescoren izenean izenpetu zituzten pintaketak, euskara munduko ondare kulturala dela aldarrikatzeko. Bada, epaiketaren egunean, euskaltzale guztiak deitu dituzte Baionako epaitegiaren aurrean elkartzera, 13:30etan.

Irakurri gehiago [hemen](#).



EHUn euskarak jasaten dituen erasoei aurre egiteko Ibaetan egindako protokoloarekin bat egin du OEEK

EHUko Ibaetako campusean ikasle euskaltzaleak batzen dituen IEP Euskarari! Ibaetako Euskaltzaleen Plaza taldeko kideek salatu dutenez, "euskaraz ikasten dugula esaten den arren, hezkuntza-prozesu hori ezin izaten dugu inoiz %100ean euskaraz egin, unibertsitateak ez baitu baliabide nahikoa eskaintzen". Horiek horrela, eremu horretan gertatzen diren erasoei aurre egiteko protokolo bat landu dute, "autodefentsa" tresna bat. OEE Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak ere protokolo horrekin bat egin du.

Honi buruz, [Berria](#) egunkariak plazaratutako [albistean](#).



"Osatuberrri" aldizkariaren zenbaki berria kalean da jada

Osakidetzak euskara hutsean argitaratzen duen "Osatuberrri" aldizkariaren urtarrila-otsaileko zenbakia eskuragarri dago jada. Besteak beste, martxoaren 14tik 24ra bitartean, Irunetik Baionara, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen [Korrikaren](#) 23. edizioari eskaini diote hitzaurrea.

"Osatuberrri" aldizkariaren 69. zenbakia (pdf) eskuratu [hemen](#).